

# BALEIKE

195 ZENBAKIA: EURO BAT  
201 Iko URTARRILA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)

## ERRETZAILEAK KANPORA

Besteak beste, tabernetan erretzea debekatzen du tabakoaren kontrako lege berriak. Zumaiako ostalarien eta herritarren iritzia jaso dugu

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

## Casa BASUSTA

CASA  
BASUSTA  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

*Etxez etxeko zerbitzua*

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611



# BALEIKE 195

AZALA a. rubio aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpuru, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleiketik ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

9

baleike +

## ZER IRUDITZEN ZAIZU TABAKOAREN KONTRAKO LEGE BERRIA?

4

hitz-tantak

SILVIA CARRIZO

7

bertso xorta

BOTA BERTSO BAT!

16

hizpiak eta hizkiak

BUELTA BAT EMATEN

18

erreportajea

ANKERKERIAREN

LEKUKO ETA BIKTIMA

25

erretratu

ILUSIOA EGIA BIHURTUA

30

ipuina

IZENA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa



Zumaiako Udala

# “Jendeak interneten du aukera benetako informazioa lortzeko”

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

## Noiz hasi zinen *Hitza dugu* saioa aurkeztzen?

2009ko urrian hasi ginen, Herri Irratian, eta 2010eko urritik, Onda Vascan.

## Nola sortu zitzaizun aukera?

Saioa hasi zela urte asko dira. Ziklo asko izan ditu. FISek sustatzen du, elkartasunaren nazioarteko federazioak. Txema Auzmendi hasi zen, eta gu kolaboratzaileak ginen. Txemak utzi zuenean ekin nion nik.

## Nola izan zen hori?

FISeko kideak nirekin jarri ziren harremanetan, ezaguna nintzelako beraientzat. Egitasmoa aurkeztu zidaten, gustatu zitzaidan, eta horrela hasi nintzen.

## Zer aldatu duzu saioan?

Iraupena eta edukia. Lehen ordu erdikoa zen, orain ordubetekoa. Musika ere sartu dugu, adibidez.

## ‘Hitza dugu’ izenarekin adierazi nahi duzue batzuei ez zaiela hitza



## ematen. Nork ez dauka hitzik?

Guk ez daukagu hitzik. Gaztelaniaz ‘los nadies y las nadies’. Jende horri hitza ematea da helburua.

## Nortzuk dira horiek?

Etorkinak, boluntarioak, lan isila egiten dutenak..., komunikabideetan azaltzen ez direnak. Lan handia egiten dute, beste mundu justuago baten alde. ‘Hitza dugu’. Eduardo Galeanoak dio hitzak hustu egiten dituztela, manipulatuak daudela, eta balioa eman behar zaiela.

Kazetariak kazetariari elkarrizketa. Euskal Herrikoak Argentinan jaio eta Euskal Herrian bizi denari. Idatziz argitaratzeko. Argentinan jaio eta Euskal Herrian bizi denak hitza ukatzen zaienei elkarrizketak. Hemengoei eta mundukoei. Irratian entzuteko. Larunbatero, 15:00etatik 16:00etara, Onda Vascan. Hitza dugu izenburupean. Ukatua dutelako, dugulako.

Hori da. Hitzak bete egin behar dira.

## ‘Hitza dugu’ saioa etorkin batek aurkeztea zer da, kasualitatea ala kausalitatea?

Kausalitatea da. Beti azaldu izan dira etorkinak saioan.

## Indar handiagoa ematen dio aurkezle etorkina izateak?

Ez dut uste, azken batean saio bat besterik ez da. Baina kontestua hobeto azaltzen da, bestela gutaz bestek hitz egiten dutelako beti. Lehen pertsonan aritzeko modua da, guk ere hitza dugulako, geure pentsamendua dugulako, geure ideiak dauzkagulako.

## Gero eta jende gutxiagori ematen al zaio hitza?

Ez. Gero eta gutxiago dira hitzik ez dutenak.

## Nork ukatzen die hitza? Botereak.

Saioa aurkeztzen entzun nizun aurreko batean, eta pentsatu nuen: “Ez du lehen aldía, lehendik ere ibilia da lan hauetan”.

Bueno, kazetaria naiz, eta Argentinan irradian lan egin izan dut, baita prentsa idatzian ere. Denetik egin izan dut: albistegiak, egunerokoak, umorezko saioak, rockari buruzkoak...

## Nola izena zuen hango emisora? FM San Jorge.

## Irratia berdín egiten al da Argentinan eta Euskal Herrian?

Bai. Ez da aldatzen. Beste kode batzuk daukazu entzuleak ere ezberdinak direlako, baina irrátia egiteko modua bera da.

## Non dago jende gehiago hitzik gabe, Argentinan ala Euskal Herrian?

Ez dakit, baina bietan berdintsua dela esango nuke. Adibide bezala: Argentinan preso politikoak daude, eta Euskal Herrian preso politikoak daude. Gizarte hobea lortzeko aldarrikapenak egiteagatik preso dago jendea Argentinan, eta hemen ere bai.



**Izena: Silvia Carrizo; Jaioterria: Caleta Olivia (Argentina); Jaioturtea: 1965; Ikasketak: kazetaritza; Lanbidea: denda bat du Zumaian, eta Hitza dugu saioa aurkezten du Onda Vascan. Aurretik, Argentinan, FM San Jorge irratian eta El Patagónico egin zuen lan; Eredutzat daukazun kazetaria: Rogelio Garcia Lupo argentinarra. Liburu asko idatzi ditu. Bizitza osoa eman du petrolio enpresa handien benetako asmoak azaleratzen; Telebista saio bat: ez dut telebista ikusten; Irrati saio bat: Onda Vascako ordur orduko albistegiak entzuten ditut, eta EITBko irratietakoak ere bai, baina gustuko saiorik ez daukat; Hitza dugu saioan gehien hunkitu zaituen testigantza: lanik gabe zegoen emakume batena izan zen, hau esan zuen: "Esklabuak baino okerrago gaude"; Lanerako, irratia ala egunkaria? Idaztea gehiago gustatzen zait, eta pena dut denbora askorik ez daukadalako; Egunkari bat: Le Monde; Nor elkarrizketatuko zenuke Hitza dugu saioan? Nelson Mandela, emakume indigenak, eta beste asko eta asko.**

### Zer esanahi ematen diozu kazetaria izateari?

Molestatzea da. Mundua ez duzu aldatuko, baina molesta diezaiokizu botereari, ikusezina dena ikusgarri bihurtu, salatu.

### Bide horretatik al doa kazetaritza?

Ez. Baina teknologia berrien eraginez kazetaritza bere bidera itzuliko da. Orain, egoera horretara moldatzen ari gara. Kazetaritza ez da *El País* edo *El Mundo* egunkariak, CNN telebista katea.... Enpresa handiak dira, eta beren asmoak ezkatutu egiten dituzte; horren adibide da Prisa taldea, esaterako. Ez daukate beren baitan kazetariok kazetaritza ematen diogun esanahia. Notiziak saldu egiten dituzte. Negozioa da beraientzat. Horien aurrean, sare sozialak daude, bestelako egunkari batzuk, eta badago non informatu. Nahi duenak badu non informatu.

### Baina Interneten dagoen guztia kazetaritza al da?

Ez, ez. Norberak egiaztatu behar du irakurtzen duena, ikusten duena, egia den edo ez. Baina webgune askotan askoz informazio gehiago dago egunero kioskoetan dauzkagun egunkarietan baino.

### Eta zer irakurtzen edo ikusten duzu Interneten?

Caos en la red, Rebelion, Telesur... Aukera asko dauzkat. Gauza handia da mundu guztiak aukera izatea horiek guztiak irakurtzeko. Baina jendeak uste du *El País* egunkariak eta Antena 3ek emandako albiste guztiak egia direla, zergatik eta *El País*ek eta Antena 3ek ematen dituztelako. Baina aldatuz doa hori. Informazio egiazkoa ematen duten erreferentziak aldatzen joango dira, eta kazetariaren balioa berrindartu egingo da berriz.

### Zer iritzi duzu Wikileaks-en inguruan?

Fenomeno bat da. Bagenekien gauzak horrela gertatzen zirela, baina orain denok daukagu informazio hori jasotzeko aukera.

## "Kazetari askok kazetari izateari utzi dio, operadore politiko izateko"

### Desinformazioa eman egiten zaigu, eta informazioaren bila gurek joan behar dugu?

Horrela da. Botereak hala nahi duelako. Baina, gaur egun, telebista baino gehiago ikusten da Internet, eta jendeak hor dauzka aukerak benetako informazioa lortzeko.

### Kazetaritzak prestigio gutxi du gaur egun?

Erabat galdu du. Ni kazetaritza ikasten hasi nintzenean, diktaturatik atera berriak ginen Argentinan, eta ospe handia zeukan ofizioak, baina,

orain, kontrakoa gertatzen da. Kazetari askok kazetari izateari utzi dio, operadore politiko izateko.

### Nolako etorkizuna dauka kazetaritzak?

Balioa hartuko du berriz, teknologia berriak erabiltzen ikasten dugunean. Garcia Marquez Fundazioak ikastaro asko ematen ditu, eta on line egiteko aukera izan nuen batean, ikasi dut denok galduta gaudela. Baina, orain, informazioa lortzeko edozein lekutan egon daitezke berriemaileak teknologia berriei esker, eta hori koordinatzen asmatu behar dugu. Hor egon behar dugu kazetariok.

### Denok izango al dugu noizbait hitza?

Baietz uste dut! Horretarako ari gara lanean, horretarako bizi gara. Ez badugu sinesten hala izango dela... Koldarrek badakite galdu egingo dutela eta horrek kentzen die indarra. Utopia beharrezkoa da, bestela ez ginateke ibiliko. ■



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es



**LIBRURU DENDA AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

**ALBERDI**  
Dj July

Musika onena eskontzetan,  
kintoen ospakizunetan eta era guztietako festetan



600 982 810  
july\_alberdi144@hotmail.com



**ALGORRI TABERNA**

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA




Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 anasetxekozapatak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

*D'Ana*



Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 406



Okindegia Arkiupe

Napusta, 2 - tel. 943 861 001  
ZUMAIA

**OGI-EDER**



**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe z./9  
Zumaia 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Itzua, French, euskara, English, Espagnol, Catalonian, Suomi, Basque, Catala, Finnoa, Francés, Anglés, Italiano, Francés, Castellano, Finnois, Inglés, Bakki, Letalan

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943 148 306  
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



**Basodi albaitaritza**

Ribaitario Itakl Garmendia

Basodi, 7. behea - tel. 943 143 310  
www.basodi@basodi.clirivet.com  
www.basodi.clirivet.com

Golbez: 11-13 / Arrotsak: 16-19:30 / Astelohen goizean eta larunbatean 8:30a  
Larrialdetarako: 605 728 797 Etxez ebeko zerbitzua

**BASUSTA ERRETEGIA**



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

**BATELA**



**ARRANDEGIA**

Izustarri, 2-4 Tel. 943 860 750

**BEDUA ITURGINTZA S.L**  
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369



**Braky's**  
Okindegia Kaitetgia

Izoga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289



# “Bota bertso bat!” lehiaketa

Gaia: Noiz arte

## Irabazlea

### INAXIO MANTEROLA

*Doinua: “Zeru altuan zegoen jaunak” (Xabier Lete)*

**G**aur eguneko Euskal Herria mundu globalaren PARTE Itxurak, modak, ergelkeria bihurtu zaizkigu KATE bizi gerade gizalegetik urruti eta APARTE erantzuteko galdera zaila: memokrazia NOIZ ARTE?

## Aipagarriak

### MARIAUXUN

**T**xikitan biok zenbat jolastu ote genuen batera hogeitik behera kontatu eta korrika izkutatuzera joaten ginen estalapeko posteren baten atzera. Orain urteak aurrera jolasa errealitate da paretan kontra begiak itxiz noa kontaktzen hastera baina ez dakit gaur zenbagarren zenbakitikan atzera (bis).

### IÑAKI GOÑI

**A**matxoren sabelak gehiago ezingo bederatzi hilabete igarota Bingo! Prest jateko hamaika arrautza gorringo Bizitzan bideari diogu ekingo baina inorrek ez du noiz arte jakingo.

### PIRU

*Doinua: Lazkao txiki (intro)*

**A**benduaren hirugarrena hitz polit baten eguna ederra bezain eskuzabala gutxi askoren laguna maitale asko dituzu baina irribarrea iluna noiz arte eduki behar duzu kolokan etorkizuna zugatik naiz euskalduna.

### ITXASO URKIDI

*Doinua: Bart arratsean (Lazkao txikirena)*

**I**largo bete bi joan zaizkigu azken hontan pentsalari begi gehienek isuri dute amorru-malko ugari etxeko aulkien hutsunea da aurten Gabonen opari izar gorriak hamabi hamaika ametsen gidari (bis) Beñat alboan ez izatea igertzen degu nabari Muxu goxo amaigabe bat ta besarkada bat berari (bis).



**EGOKI**



*Erloju eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787

**ekin**  
ELEKTRIZITATEA, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaina tel. 943 143 087  
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet





Erribera, 8 tel. 943 861 694



**ERNTO TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
OPIL-OKENDEGIA  
SANTILLO AUZOA, 32  
20750 ZUMAILA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errota@errota-okendezia.com

NORTASUN-AGIRIENTZAKO ARGAZKIAK

**10** Minutuan



**ERTZ** informatika  
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

**FARMA ZUMAILA**  
Parafarmazia • Belar-denda  
Tel. 943 865 323

**PRODUKTUAK**

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

**ZERBITZU BEREZIAK**

- Dietista, Naturapala, Inducologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Laxatzaileak, Estresaren, Artxitektaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura: horatzekin eta horatzik gabe.

BASADI KALEA, 1 - BEHEA - ZUMAILA

**Galdona**



**burdindegia**

Mendaro manrieta, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

**GANBARA**

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



**Garoa**  
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

*Era gutxietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan*

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



**GOIKO TABERNA**

Erribera, 9 tel. 943 861 391

**GOFI**  
Gazte Surf

Baltasar Etxabe, z.g.  
tel. 943 860 959

**SPOT**  
SURF DENDA


Ortega y Gasset, 2  
tel. 943 860 768

**OUTLET**

%50  
%60  
%70

Aita Mari  
(postetxearen aurrean)

**Gure Txokoa**  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaina  
Tel.: 943 86 09 70

English School

**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

**Ibaigain**  
inmobiliaria

Ricardo Azkue  
API 309

Txomin Agirre 4, behea  
tel. 943 862 651  
faxa 943862748

riazcue@euskalnet.net



INKESTA

# ZER IRUDITZEN ZAIZU TABAKOAREN KONTRAKO LEGE BERRIA?

BALEIKE +

Irakurle askok gogoan izango dute oraindik, ez hain aspaldi, Zumaian oso ezaguna zen mediku batek zigarroa ahoan zuela idazten zituela errezetak. Lantokian erretzea ohikoa zen duela gutxi arte, eta Hollywoodeko zenbat izar ikusi ditugu filmeetan beti zigarroari kateatuta. Garaiak aldatu egin dira, ordea. Erretzeak eragiten dituen osasun arazoak direla eta, azken hamarkadan zorroztu egin dira tabakoaren kontrako neurriak. Urtarrilaren 2tik indarrean dagoen legea horren adibide. Tabernetan ezingo dela erre da ekarri duen berrikuntza deigarriena. Zumaiako ostalarien eta herritarren iritzia jaso nahi izan dugu.

TESTUA: JON URBIETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA eta JON URBIETA

Ander **URBIETA** Tximista taberna

## “Legea etorri aurretik erabaki nuen nire tabernan ezingo zela erre”

Lege berri hau etorri baino lehen, Taberna zabaldu aurretik erabaki nuen nire tabernan ezingo zela erre, Zumaian ez zegoelako toki bat ez-erretzaileentzat. Lege berri honi dagokionez, dakidana da debekua gogorazten duten kartelak jarri behar ditugula taberna barruan, eta norbait erretzen ikusiz gero, kargu hartu behar diogula. Azken hori ez zait ondo iruditzen. Gu ezin gara ertzainarena egiten ibili. Nik uste dut isuna erretzaileari jarri behar zaiola, eta ez tabernariari.

Dena den, erretzaileentzat toki bat prestatzeko asmoa dut mahai batzuk kanpora aterata, eta hautsontzi eta kalefakzioekin. Baina taberna batzuek ez dute aukera hori.

Tarteka, ez ikusiarena egiten duten erretzaileak izan ditut; beste batzuek, inertziaz edo, zigarroa pizten dute konturatu gabe, eta horiei atentzioa deitu behar izan diet. Soluzioa, kale jantzian ibiltzen diren ertzainek jar ditzatela isunak, baina erretzaileei, guri ez. Nik uste dut hemendik urte batzuetara konturatuko garelako lege honen aurreko egoera ez zela onargarria, ez-erretzaileen osasuna kontuan ez hartzea astakeria galanta zela.

Asier **LLAVORI** Erretzailea

## “Erretzaileoi erretzeko eskubidea kentzen ari zaigu”

Alde batetik, ondo iruditzen zait jendea ez gustatzea kez inguratua egotea, baina, bestalde, iruditzen zait erretzaileei erretzeko eskubide hori kentzen ari zaigula. Gure kafetxo hartzen dugun bitartean, adibidez. Azkenean, Zumaian dauden tabernen erdiak baino gehiagok ez dute terrazarik, eta erre ahal izateko kalera irten beharra besterik ez genuen behar, egiten duen hotzarekin...

Adibidez, parkeetan erretzea debekatzea ondo iruditzen zait; azken finean, umeak daude inguruan eta, beraien eremua denez, nik uste dut hori errespetagarria dela. Bestalde, nik uste dut duela lau urteko legera egokitzeo taberna askok eta askok inbertsio handiak egin zituztela. Diru hori ez dute berreskuratuko eta batzuek sekulako galerak izango dituzte. Diru hori nork bueltatuko die? Gobernuak? Ez dut uste. Eta, orain, jatetxe batean bazkalduta orduko kalera irten beharko dut zigarroa erretzera... Tira, nire lagun guztiak erretzaileak direnez, ez dut arazorik izango...

Maialen **ODRIOZOLA** Erretzailea

## “Ez-erretzaileek ez dute gure kea jasan beharrik”

Erretzailea naizen arren, nik nahikoa ondo ikusten dut lege berria. Erretzaileak ez direnek gure kea jasan behar izatea ez zait batere ondo iruditzen, eta lege honekin seguru guk ere gutxiago erreko dugula. Lehen asko erretzen nuen, baina, orain, lege berriarekin, gero eta gutxiago, tabernatik kalera ez irteararren.

Oro har, nik uste dut erretzaileok ondo erantzun dugula, legea errespetatu eta kalera irteetan garelako erretzera. Gainera, oso egokia iruditu zait taberna batzuek erretzaileekin izandako detailea, kalean eserlekuak, mahaitxoak edota hautsontziak jartzea (Kabi, Nikol...), pixka bat mimatu egin behar baitira erretzaileak ere.

Isunak, orokorrean, gaizki iruditzen zaizkit, eta tabernari isuna jartzea ez da batere bidezkoa, haiek ez dute eta inolako errurik. Lortu behar duguna da jendeak zigarroa uztea inguruan dagoen jendearen osasuna errespetatzen duela, eta ez isunaren beldur delako.


Aurrera begira, nik uste dut jendeak gutxiago erreko duela, baina, bestalde, iruditzen zait diru galera hori isunen bitartez berreskuratuko duela Gobernuak. Eta tabernari dagokionez, nik uste dut beraien lana ez dela poliziarrena egitea, baizik eta konbinatu onak prestatzen jarraitzea. Ospitalen kanpoaldean ezin erretzea ere gaizki iruditzen zait.

Joserra **GORRITI** Itzurun taberna

## “Poliziarrena egin behar izatea da ez zaidana ondo iruditzen”

Hasiera batean pentsatzen genuen jendeak okerrago erantzun zuela, baina ikusi dugu ez dela horrela izan. Guk, oraingoz, terraza bat egokitu dugu, bionbo batzuekin, berogailu eta guzti, baina oraindik ikusi egin behar dugu ea legeren barruan dugun terraza hau edo ez.

Oraindik egun gutxi pasa dira eta ezin ditugu ondorioak atera. Lehen eguna ondo joan zen arren, bigarren egunean jada izan genituen arazo batzuk bezero batekin. Azkenean gure artean geratu zen kontua, eta esan nion erre nahi bazuen, bere etxean erretzeko, ni arazoetan sartu gabe. Poliziarrena



egin behar izatea da, hain zuzen ere, ez zaidana ondo iruditzen, garbi baitaukat ni ez naizela inoren polizia.

Eta zigorrei buruz zer esango dizut, ba... Pentsa, ez dut gustuko polizi lanak egitea, imajina isunak ordaintzea... Eta bezero kopurua jaitsi ote den, oraindik ez dut igarri, denbora gutxi pasa da-eta legea abian jarri denetik. Badira 18 urte erretzeari utzi niola, eta egia da orain sekulako garbitasuna nabari dela tabernako airean. Orain pintxoan usaina gehiago nabaritzen da, baina beldur naiz besapeetako izerdiaren usainak ere ez ote duen indar gehiago edukiko... (barrez).

Vicky **SANCHEZ** Braky's kafetegia

## “Lege honek erretzaileen eta ez-erretzaileen eskubideak bermatzen ditu”

Niri oso ondo iruditzen zait. Nik duela hiru urte erabaki nuen lokalaren barruan ezin zela erre. Hasieran, aurreko legearekin, lokalean bi eremu bereizi nituen, bat erretzaileen-tzat eta bestea ez-erretzaileen-tzat, baina azkenean atzera egin behar izan nuen, erretzaileek ez zutelako besteen eremua errespetatzen. Orduan erabaki nuen barruan ezingo zela erre. Uste dut lege berri honek erretzaileen eta ez-erretzaileen eskubideak bermatzen dituela.

Nik bezeroekin ez dut inolako arazorik izan, bezero onak ditut betidanik. Erretzaileok —bera erretzailea da— badakigu gure txokoa kanpoko terraza dela. Neguko hotzei aurre egiteko, gainera, manta berezi batzuk erosi ditugu. Hala ere, uste dut legea gogorregia dela isunen aldetik, batik bat, guri polizi lanak egitea tokatzen zaigulako eta azkenean erretzaileak denerako du erantzuna. Baina, bestela, niri lege honek mesede handia egin dit, lehen hona etortzeari utzi zioten bezero erretzaileak orain berriro niregana itzuli dira.

Jon **ZENDOIA** Maluta jatetxea

## “Orain jendeak denbora gutxiago pasatzen du tabernan”

Nik uste dut jendea gusturago egongo dela tabernetan kerik gabe. Erretzaileek kanpora irten beharko dute erre nahi duten aldiro, hori da lege honen alderik txarrena, baina guk terraza dugunez, ez dugu arazorik. Hala ere, konturatu gara orain jendeak denbora

gutxiago pasatzen duela tabernan, edan ondoren zigarroaren falta sumatzen duenez, kanpora irteten delako. Oraingo ez diogu ohartarazi inori ezin dela erre eta hori eskertzekoa da. Dirudienez jendea mentalizatuta dago. Gainera, ondo asko dakite gutaz aparte beste edonork erreklamazio orriak eskatu eta erretzailea denuntzia dezakeela, nahiz eta niri azken hori ez zaidan oso ondo iruditzen. Eta duela lau urteko legea dela eta, guk ez genuen lokala bitan banandu, zeren ez genuen ondo ikusten. Baina nik uste dut, moldaketa horiek egin zituzten lokalen kasuan, gobernuak-edo, gastu horien kargu egin beharko lukeela.

Lorenzo **HEDILLA** Erretzaile izandakoa


## “Zergatik jarraitzen dute tabakoa saltzen erretzea debekatuta baldin badago?”

Niri gehiegizkoa iruditzen zait lege berri hau. Funtsezko tokietan jartzea ongi, baina toki guztietan... Nire galdera, orduan, hauxe da: zergatik jarraitzen dute tabakoa komertzializatzen eta zergatik igotzen dituzte prezioak debekatuta baldin badago erretzea? Hori da jakin nahi dudana, politikariek-edo esatea. Orain, ordea, tabernan denbora gutxiago pasatzen dugu, geneukan denborapasa bakarra kendu digute-eta. Polizi lanak poliziak egin ditzala eta ez tabernariak. Multen helburu bakarra da tabakoarekin galtzen dutena berreskuratzea. Lotsagabeak!

Itziar **EGAÑA** Gure Txokoa taberna

## “Ikusten dugun irtenbide bakarra da terraza jartzea”

Nik uste dut aurreko legea egokiago zela berri hau baino; hau zorrotzegia iruditzen zait, azken finean lokala gurea delako. Nire ustez, lege hau kaltegarria izango da tabernen negoziatorako. Legea indarrean jarri eta egun gutxira, bezero bati entzun nion soziedadera zihoala zerbait edan eta gurean erositako purua lasai erretzera. Tabernariok lan asko egin behar izaten dugu bezeroak irabazteko, baina galarazi, beste batzuek galarazten dizkigute. Orain ikusten dugun irtenbide bakarra da terraza jartzeko baimena eskatzea, eta ea ematen diguten. Bestela, terraza dutenek abantaila handia izango dute.



**Idoia**  
 Moda dena  
 Andregaitan espezializatirik

Julio Beobide, 2 behea      Tel. 943 86 03 01  
 idoiazumaia@gmail.com

**Jhinza**

**ilargi**

Alai auzategia, 2  
 Tel. 943 24 50 20

**IRIONDO JATETXEA**

Txikiardi  
 auzoa  
 Tel.  
 943861390  
 675715017

*Gure espezialitatea:  
 arrainak eta barajia parvillan*

**IRUITZ**

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 860 760

**ITSASKI  
 SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z.g.    tel. 943 143 058

**Itzurun, S.L.**  
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarmak, armari erprotzak...

Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea  
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI  
 ZUMAI A**

943 862 083

**KABI**    Pasaia Etxezarreta, 15  
 943 117 427

TABERNA

**JUARISTI**  
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
 Eguneko menua  
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10      tel. 943 861 853

**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20    Tel./faxa: 943860320

**kalari**

Upela plaza, 8  
 tel. 943 862 517

**Kresala**  
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869

**kuttun**  
 lentzeria

erribera kalea      tel. 943117936

**Larraitz** ile-apaindegia

Basadi auzategia 5 behea  
 Zumaia  
 tel.: 943 14 30 41

**malaur**

**MAITE**  
 ILEAPAINDEGIA

Amaiko plaza, 2      tel. 943 143 276

# Zer dio lege berriak?

Espainiako Gobernuak onartutako legea urtarrilaren 2tik dago indarrean. Kontuan hartu behar da otsailean Eusko Jaurlaritzak bere legea onartu nahi duela, ekainean-edo indarrean jartzeko. Espainiako baina zorrotzagoa izango omen da, baina, funtsean, jasotzen dituen neurriak oso antzekoak dira. Hauek dira indarrean dagoen legearen puntu nagusiak

## **Tabernetan eta jatetxeetan erre al daiteke?**

Lokal itxi guztietan erabat debekaturik dago erretzea, izan taberna, jatetxe, pub, kontzertu areto, bingo edota kasino. Aurrerantzean ez da egongo erretzaileentzat gordetako txokorik. Hori bai, terraza irekietan erre ahal izango da.

## **Hoteleko gelan?**

Espainiako legeak dio ostaluetek gelen % 30 gorde ahal izango dituztela erretzaileentzat, baina Jaurlaritzarenak proposatuko du guztietan debekatzea.

## **Tren edo autobus geltokietan?**

Atari zabalean daudenetan erre ahal izango da, gainerakoetan ez.

## **Aireportuetan?**

Orain arte erretzaileentzako kaiola moduko batzuk zeuden aireportuetan. Horiiek kendu egin dituzte. Erre nahi duenak aireportutik irten beharko du.

## **Taxietan?**

Espazio publiko itxia da. Aurreko legeak ere debekatzen zuen taxietan erretzea.

## **Auto partikularrean?**

Jaurlaritzak otsailean onartu nahi duen legeak dio ezingo dela autoan erre adin txikikoak baldin badaude.

## **Etxean?**

Norberaren erabakia da.

## **Etxebizitza blokeetako atarietan?**

Bizilagunen esku gelditzen da erabakia, baina, gune itxia denez, ez erretzaileen eskubideak bermatu beharko lirarteke.

## **Igogailuan?**

Debekatuta dago 2005etik, espazio txikiak direlako.



## **Ezkontza batean?**

Jatetxe batean bada, ezin da erre.

## **Elkarte gastronomikoetan?**

Bazkideena da erabakia. Hori bai, zerbitzariren bat izanez gero kontratupean, orduan langilearen eskubideak hartu behar dira kontuan eta ezingo da erre.

## **Pilotalekuan?**

2005etik dago debekaturik. Orain arte ez da legea beteaz, baina aurrerantzean zorrotz jokatu dutela iragarri dute arduradunek. Frontoiaren jabeak jasoko luke isuna.

## **Futbol zelaian?**

Espainiako Gobernuak onartu duen legeak erretzea baimentzen du, baina Jaurlaritzaren legean ez dute oraindik erabaki.

## **Ospitaleen kanpoaldean?**

Ospitaleen eremu osoan ezin da erre, kanpoaldean ere ez.

## **Haur parkeetan eta eskoletako patioetan?**


Haurrentzat diren ekipamenduetan ezin da erre.

## **Nork betearaziko du legea?**

Lan edo osasun ikuskatzaileek, ertzainek edota udaltzainek.

## **Legea betetzen ez duenak?**

Erretzaileak eta negozioaren jabeak jasoko dute isuna. Arinena 30 eurokoa izango da, eta handiena 600.000 eurokoa izan daiteke. Legea behin eta berriro hautsiz gero, lokala bost urtez ixteko aukera jasotzen du legeak.





**Maluta**  
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kasuclitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanbursesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**Maxi**  
solarium  
ileapaindegia  
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

**Nikol Enea**



**TABERNA**

Amaiako plaza



ETXEGINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

636 867 812 (Zumaia)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112  
oskartzkirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Industrigunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibilbidea, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



**La Prima Vera**  
pizzeria

Alta Mari, 17, behea  
tel. 943 247 011

Jesus Mari **MERINO** Zelai Talaso Hotela  
 “Bezeroak bere gelan zer egiten duen ezin dugu kontrolatu”

Zelaiaren ideia beti izan da bezeroari leku osasungarria eskaintzea, eta horregatik eraikin osoan debekatuta egon da erretzea, tabernan eta jatetxean izan ezik. Orain, lege berriarekin, bi eremu horietan ere debekatu egin behar izan dugu. Guri eragozpen handiena ezkontzetan sortzen digu.

Bestetik, legeak esaten du hoteletan logela kopuru jakin bat gorde daitekeela erretzaileentzat. Niri aukera hori ondo iruditzen zait, baina guri ez digu eragiten, gurean ezin delako logeletan erre. Hori bai, gero bezero bakoitzak bere gelan zer egiten duen guk ezin dugu kontrolatu, gela guztietan kearen kontrako alarmak ditugun arren.



Jon **ETXABE** Ez-erretzailea

“Etxera iritsi eta arropak tabako kiratsik ez edukitzeak ez du preziorik!”

Niri oso ondo iruditzen zait. Nahi duenak izorra ditzala bere birrikak, baina ez besteenak. Gaizki iruditzen zait, ordea, lege hau indarrean jartzeko ibili duten modua. Aurrena, erretzaileentzat gune bereziak jartzera derrigortu zituzten. Hor galtzaile handienak negozio horien jabeak izan dira, egin behar izan zuten inbertsioak ez duelako ezertarako balio

izan. Baina, beno, urteko ardoa 0,85 euro, zurittoa 1,10 euro, kubata 4,50 euro, kafetegiko gosaria... No coment. Etxea iritsi eta arropak tabako kiratsik ez edukitzeak ez du preziorik!



Nerea **DOMINGUEZ** Ez-erretzailea  
 “Tabernariei isunak jartzea ondo dago, bestela ez litzateke legea beteko”

Legearekin guztiz ados nago. Batzuek erretzen dutelako besteok ez dugu zertan beraien kea guztiak irentsi. Eta tabernariei ere isunak jartzea ondo dago. Isuna erretzailearentzat bakarrik balitz, tabernako jabeak ez luke inolako neurririk hartuko bezeroak ez galtzearen eta legea ez litzateke beteko. Nik uste dut espero baino azkarrago ohituko garela egoera berrira, legea martxan jarri denetik emaitza oso ona izan da-eta. Orain tabernetan aire garbia arnas dezakegu, eta ez lehen zegoen usain txar eta giro kargatu hura.



Azucena **SANCHEZ** Erretzailea

“Bitxiena da orain taberna barruan ume gehiago ikusten direla”

Ohitura kontua dela pentsatzen dut. Erretzeko gogoia badut, kanpora aterako naiz eta kito; semeentzat ere onena dela pentsatzen dudalako. Ernio tabernan, adibidez, hautsontzi bat atera dute eta jendea oso gustura dago. Nik uste dut erretzaileek errespetu gehiago diegula ez-erretzaileei beraiek guri baino. Bitxiena zera da, orain taberna barruan ume gehiago ikusten direla lehen baino: lehen umeak kalera bidaltzen genituen ketik babesteko... ■





argazkia eta testua Leire Zearreta Urbieta





# Buelta bat ematen

Senarraren lasterketak direla eta, batetik bestera gabiltza maiz eta horrela, bide batez, argazkiak ateratzeko aprobetxatzen dut denbora. Asteburu hartan, Zornotzako mendi lasterketari egokitu zitzaion txanda.

Lasterketaren aurreko eguna zen, iluntzen hasita egon arren, kamera nirekin hartu eta buelta bat ematera irten ginen. Eguzkia ezkutatu zenean, froga batzuk egiten hasi nintzen, aurrez inoiz ez bainintzen gaueko argazkiak egitera ausartu. Frogetako bat, ISOa igotzea izan zen, 3200 arte hain zuzen. Gure ibilbidean, skateko pista batekin egin genuen topo. Graffitiez apaindutako pistaren eta elizaren arteko kontrastea gustatu zitzaidan eta baita zeruak eta gainontzekoak hartu zuen kolorea ere. Gainera, 24mm-ko foku-distantzia bat erabilita argazkiari emandako efektu berezia gustatu zitzaidan.

*Argazkiak ez du inolako manipulaziorik jasan, abiadura 1/25 seg, f/5.0*

Joan den azaroaren 8an Marokok indarrez hartu zuen 20.000 sahararrek Aaiundik 15 kilometrora antolatutako protesta kanpalekua. Kanpaleku hartan zen Ahmed Yeddou. Marokoren bortizkeria eta ondorengo atxilotetan jasandako torturak kontatu dizkio *Baleikeri*, Zumaiara egindako bisita aprobetxatuta.

TESTUA: GORKA ZABALETA



# ANKERKERIAREN LEKUKO ETA BIKTIMA

**Ahmed Yeddou Salem Lecuara** da nire izena. 1976ko uztailaren 27an jaio nintzen, Aaiungo kartzela beltzean. Fronte Polisarioan anaia bat zuelako atxilotu zuten ama. Ni bezala, haur asko jaio dira Marokoren kartzela beltzetan [kartzela ezkutuak dira].

## Protesta baketsua

2010eko urri aldera, milaka saharar hasi ziren biltzen Gdeim Izik-eko kanpalekuan, gure herriaren egoera latza modu bake-tsuan salatzeko. Aaiundik urrun, 15 bat kilometrora altxa zuten kanpalekua, hiriko kolonoekin eta autoritateekin arazoak saihesteko. Ondo antolatutako kanpalekua zen: medikuak zeuden, garbiketza zerbitzua, ura eta janariak hornitzeaz arduratzen ziren boluntarioak... 20.000 sahararrez osatutako familia handi bat zen. Protesta baketsu hura, ordea, arriskutsuegi ari zen bihurtzen Marokoren interesentzat eta ezin zuen halakorik onartu. Kanpalekua militarrez inguratzea erabaki zuen. Sartzeko eta irteteko pasabide bat baino ez zuten utzi.

## Sarraskia

Azaroaren 7an iritsi nintzen kanpalekura, familia bisitatzerako. Hurrengo egunean, goizaldeko 05:30ean, Marokoko militarrek eta poliziak indarrez sartu ziren kanpalekuan, auto eta kamioietan, hainbat helikopteroren laguntzarekin. Nire begiekin ikusi ahal izan nuen erabili zuten indarkeria basatia. Sartu bezain pronto, haimen barrualdera sua jaurtitzen hasi ziren, inor ba ote zegoen arduratu gabe. Autoekin eroen modura zebiltzan kaleetan gora eta behera jendea beldurtu nahian, ihes egin zezaten. Peraan harrapatu zuten guztia erre zuten, eta jendea kolpatzen hasi ziren, berdin zitzairen zahar edo haur, gizon edo

emakume. Beldurgarria izan zen. Sarraski hura ikusita, amaren haimaraino hurbildu nintzen, familia guztia han baitzegoen. Poliziei eskatu nien ama eta beste emakumeak bakean uzteko, baina ahoa zabaldu bezain pronto eskumuturretatik heldu eta eskuburdinak jarri zizkidaten, bizkarrean lotuta. Eta segidan borrekin eta buruko kaskoekin jipoitu ninduten. Espainiako Gobernuak Marokori oparitutako borrekin eta kaskoekin, hain zuzen ere. Jarri zizkidaten eskuburdinetan ere “made in Spain” irakur zitekeen... Batek aurpegia zapaldu zidan bere botarekin, eta kolpe erauntsiak jarraitu zuen. Amak hura ikusi zuenean, korrika gerturatu eta nire gainean jarri zen, ni babestu nahian. Baina ez ziren gelditu. Ama ere jipoitu egin zuten. Ni arrastaka eraman ninduten eta orduan konortea galdu nuen.

## Kuarteleko amesgaiztoa

Esnatu nintzenezan, kamioi batean nengoen, botata. Ez nekien ama eta beste senideak non zeuden. Kamioi hartan beste lauzpabost gazte zeuden, ni bezala, zaurituta. Tarteka gazte gehiago ekartzen zituzten, denak jipoituta. Ordu eta erdi inguru pasa eta gero, Aaiunera eraman gintuzten, Jendarmieriaren kuartel nagusira. Atzeko atetik sartu ziren, Aaiungo jendeak gu ez ikusteko.

Kuartelean berriro torturatu gintuzten. Iritsi bezain pronto, artean eskuak lotuta, kamioitik bota gintuzten. Edozein posturatan erortzen ginen, batzuek aurpegiarekin edo buruarekin jotzen zuten lurra. Iltaran jarri eta banaka-banaka arrastaka sartu gintuzten kuarterelara, etengabe jipoitzen gintuzten bitartean. Korridore bat zeukan hiru metro koadroko ziega batean sartu gintuzten. 72 lagun egon ginen han bost egunez.

## ◀ KARTZELA BELTZAK

Kartzela beltzetan ehundaka saharar ditu atxilo Marokok, baldintza penagarrietan. Senideek ere ez dute jakiten zehazki non dituzten preso. Argazkian, Aaiungo kartzela beltza.

## ▼ AHMED YEDDOU.

Gendarmeriako kuartelean jasandako torturen ondorioak garbi ikusten dira eskutan duen argazkian. Bost egun egin zituen Ahmedek kuarteleko ziega batean.



El Mami **AMAR SALEM**  
Torturaren aurkako elkartearen presidentea

## “Setio egoera mugagabeen bizi gara”



ARNAITZ RUBIO APREA

Hesi batek bananduta bizi dira sahararrak. 200.000 mila inguru, Aljeria hegoaldeko basamortuan bizi dira, Tindoufeko errefuxiatu kanpalekuetan. Etxeak, senideak eta lagunak atzean utzita ihes egin zuten Marokok Mendebaldeko Sahara indarrez hartu zuenean. Haien berri badakigu, giza laguntzaren bitartez harremanak dituztelako nazioarteko hainbat erakunderekin –Zumaiaiko Darahlirekin, esate baterako–.

Baina hesiaren barrualdean Marokoren menpe bizi diren milaka sahararrei buruz ezer gutxi dakigu. Lurralde okupatua jaiotakoak dira Ahmed Yeddou (Aaiun, 1976) eta El Mami Amar Salem (Dahla, 1978). “Marokoren okupaziopean jaiotako lehen belaunaldikoak gara gu. Gu marokoarren eskolara joan gara, irakasle marokoarrak izan ditugu, goizero Marokoko bandera altxatzen genuen eskolak hasi baino lehen. Haur marokoarrak genituen ikaskide. Baina bagenekien ezberdinak ginela: hizkuntzagatik, janzkeragatik, ohiturengatik, itxuragatik... Eskolak amaitu bezain pronto, sahararrak alde batetik eta marokoarrak bestetik”. Laster ohartu ziren zanpatutako herri baten kide zirela. “Txikitan, norbaiten aita falta zenean, beti esaten ziguten bidaian zegoela. Baina gero, jakiten duzuenean Marokoren kartzela beltz batean dagoela, orduan hasten zara egoeraz jabetzen”.

Torturaren aurkako elkartearen presidentea da El Mami. Ederki ezagutzen du sahararrak lurralde okupatuetan jasaten ari diren zapalkuntza. “Marokok milaka militar, polizia, jendarme eta kolore guztietako indar armatuak ditu Mendebaldeko Saharan. Saharar bakoitzeko bat, gutxienez. Mundutik isolatuta eduki nahi gaituzke, gure herria akabatzeko. Kolono marokoarrei erraztasun guztiak ematen dizkiete gure lurraldera etortzeko. Horrela, gero eta gutxiago gara ehunekotan. Lana aurkitzeko arazo handiak ditugu, dena marokoarrentzat baita. Gure aberastasun guztia ustiatzen ari dira, baina guk ez dugu zentimorik ikusten. Dena iparraldera doa, Marokora. Saharar askok kontrabandoan lan egin beste aukerarik ez dute, edota pateretan sartu eta Kanariar Irletara joaten dira lan bila, Marokok berak antolatutako mafien laguntzarekin.

Asko bidean gelditzen dira. Oinarritzko eskubideak ere ukatuta dauzkagu. Ezin dugu alderdi politikorik osatu, ezin dugu manifestaziorik antolatu. Errepresioa da Marokoren politika bakarra. Atxiloketak, torturak eta hilketak ohikoak dira. Praktikan, setio egoera mugagabeen bizi gara”.

Marokoren zapalkuntzaren aurrean, protesta baketsuen aldeko apustua egin dute sahararrek. Gdeim Izik-eko kanpalekua izan da aspaldiko ikusgarriena, baina 2005ean ere kalera atera ziren sahararrak. “Borroka molde baketsuen aldeko apustua egin du gure herriak 1991n gerra amaitu zenetik. 2005eko maiatzaren 21ean, esate baterako, lurralde okupatuetako hiri guztietan sahararrak kalera atera ziren, Saharar herriaren banderarekin, independentziaren aldeko intifada

“Autonomia?  
Antxumea  
otsoaren  
errapeetan  
jartzea litzateke”

baketsuan. Hura mugarria izan zen gure borrokan. Maroko oso deseroso sentitzen da horrelako ekintza baketsuen aurrean. Aminatu Haidarren gose greba ere oso eraginkorra izan zen gure herriaren auzia nazioartean zabaltzeko, eta Gdeim Izik-eko kanpalekua izan da bide horretan orain arteko ekintzarik garrantzitsuenak”.

### Informazioa kontrolpean

Marokok erabat kontrolpean du Mendebaldeko Saharari buruz mundura zabaltzen den informazioa, baina Gdeim Izik-eko kanpalekuaren ekimenarekin hesia gainditzeko gai izan dira sahararrak. “Kanpalekuarekin joko z kanpo harra-patu genuen Maroko. Hasieran, 200 bat haima zeuden, giza laguntzaren aitzakiarekin, urri hasieran edo. Baina egunetik

egunera, jende gehiago bildu zen eta agintariak konturatu zirenerako 20.000 lagun zeuden kanpalekuan, eta 9.000 haima. Hiri bat, azken finean. Zumaiaren bikoitza. Ezustekoa izan zen marokoarrentzat. Herri guztiak egin zuen lan ekintza baketsu eta eraginkorra antolatzeko, munduak gure auziaren berri izan dezan”.

Azaroaren 8an, kanpalekua militarrez inguratu eta gero, indarrez sartu eta sarraskia eragin zuen Marokok. Kanpalekua mafiaren eskutan zegoela izan zen aitzakia. “Okupazioak dirauen 35 urte hauetan ondo ikasi dugu Marokok nola jokatzeko duen. Badakigu horrelako ekintzak urduri jartzen dituela, eta bagenekien egoeraren kontrola galdu baino lehen indarkeria erabiliko zuela. Kanpalekua mafiaren esku zegoela argudiatu zuen, Fronte Polisarioa, Aljeria eta Kubaren laguntzarekin. Eta indar guztiarekin sartu ziren kanpalekura, sarraskia eragitera. 30 sahararretik gora hil zituzten. Ez dakigu kopuru zehatza, desagertutako batzuk, ziurrenik, kartzela beltzetan dauzkatelako. Marokoarrak ere hil ziren, bai, baina beraiek jaurtitako balekin. Gure arma bakarrak hariak ziren”.



## ▲ PROTESTAK AAIUNEN

*Maroko kanpalekuan indarrez sartu ondoren, protesta ekintzak egin zituzten sahararrek Aaiunen. Ondorengo egunetan, berriz, indar armatuek eta kolonoek bortizkeriaz erantzun zuten.*

## Autonomiarik ez

Sarraskiaren oihartzuna artean erabat isildu gabe zegoela bildu ziren New Yorken Fronte Polisarioa eta Maroko, auziari irtenbidea lortzekotan. Ez dugu bileren emaitzaren berri izan. Albiste onik ez, beraz. Marokok autonomia eskaintzen die, baina sahararrek garbi dute independentzia dagokiela: nazioarteko legeak hala aitortzen die. “Autonomia? Antxumea otsoaren errapeetan jartzea litzateke. Nazioarteko legea gure alde dago. Saharar herriak autodeterminazio eskubidea du, eta ezin dugu besterik onartu. Marokok Espainia, Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuak ditu alde, hainbat interes direla medio. Guk borroka baketsua aukeratu dugu eta bide horretan sinesten dugu. Baina badirudi nazioarteak gerrara eraman nahi gaituela. Gaur egun, bakezalea bazara ahula zara nazioartearen begietan; indarkeria erabili behar da besteek aintzat har zaitzaten”.



ARNAITZ RUBIO AFREA

## ▲ LANKIDETZA ASTEAN

*Joan den abenduan antolatutako Lankidetzeta Astea hartu zuten parte bi sahararrek, Darahliko Iratxe Etxabe eta Jose Mari Pastor kazetariarekin batera.*

Zaindaria edozein ordutan etortzen ziren gure bila: goizeko ordu batean, hiruretan, arratsaldeko lauretan... Banaka eraman eta bost jendermeren jipoiak jasan behar izaten genituen galdekatzen gintuzten bitartean. Uneoro belauniko eta lurrari begira egon behar izaten genuen, ezin genien aurpegira begiratu. Galderak egin bai, baina gero txostenean ez zuten jartzen guk erantzundakoa, haien nagusiek agindutakoa baizik. Ziega hartan egon ginen 72 lagunok torturatuak izan ginen. Eta ezin ginen ospitale militarra joan. Gutako bik eskatu zuten ospitalera eramateko eta okerrago bueltatu ziren: medikuak kolpatzen zaitu, erizainak kolpatzen zaitu, eta beste gaixoek kolpatzen zaituzte. Mundu guztiak kolpatzen zaitu, sahararra zarelako. Ospitalera ez joatea erabaki genuen, beraz.

Komunik ere ez genuen. Pixa egiteko plastikozko ur botila batzuk erabiltzen genituen. Gero, gaeuz, lo geundela, zaindaria etorri eta pixaz betetako botilak gure gainean husten zizkiguten. Eta botila hutsak han lagatzen zituzten, berriro bete genitzan.

Nirekin batera preso zeuden guztiak zituzten zauri larriak. Asko, mugitu ere ezin ziren egin. Nik neuk altxatzeko bi lagun laguntza behar nuen, jasotako ostikaden ondorioz. Atxilotuen artean agureak zeuden, 16 urtez azpiko gaztetxoak, gaixo mentalak eta gor-mutu bat ere bai.

## Epaitegira

Zuriz zeuden lau orri sinatzera behartu gintuzten. Ez genuen beste aukerarik. Kuarteleko ziega hartan bost egun pasa eta gero, epaitegira eramango gintuztela esan ziguten. Kamioi batean sartu gintuzten, hiru adin txikiko, gor-mutua, arazo mentalak zituen gazte bat, beste gazte bat eta ni neu. Behin epaitegian, gela batean eduki gintuzten, bi poliziaren zaintzapean. Ordu erdira, bi poliziek esan ziguten askatu egingo gintuztela. Baina nik epailearekin hitz egin nahi nuen, atxilotu eta torturatzeaz gain, gainean genuen guztia lapurtu zigutelako: erlojuak, eraztunak, betaurrekoak, arropak... Polizietako batek horrela



### ◀ GDEIM IZIK

20.000 saharar bildu ziren  
Aaiundik 15 kilometrora altxatako  
kanpalekuan.

### ▶ SARRASKIA

Azaroaren 8an sartu ziren  
Marokoko indar armatuak  
kanpalekuan, sarraskia eraginez.

## “Errefuxiatuek babesa da gehien eskertzen dutena”

Tindoufeko errefuxiatuen kanpalekuetan izan ziren Darahliko lau ordezkari abendu hasieran, orain arteko lana baloratu eta hurrengo hiru urteetarako lan plangintza Zugeko agintariekin adosteko helburuarekin.

Zumaiaitik bidalitako 78 paketerekin iritsi ziren Zugera Samuel Ruiz, Ibon Ibarguren, Iratxe Etxabe eta Ane Azkue abendu hasieran, sahararren errefuxiatuen kanpalekuetara. Darahli lanean hasi zenezik senidetutako familientzako gutunak, argazkiak eta diru laguntza zeramatzaten. Baina astebeteko bidaian beste bat zen zeregin nagusia: azken hiru urteetan egindako lana baloratu eta hurrengo hiru urteetako plangintza zehaztea hango agintariekin.

“Udan, 21 eguzki plaka bidali genituen euskal karabanan. Haiek ikuskatzea izan zen gure lehen lana. Etxez etxe joan ginen, plakak ondo instalatuta ote zeuden ikusi, arazoren bat ote zegoen... Denak ondo zeuden. Familiek biziki eskertu ziguten plakak bidali izana, beraientzat alde izugarria baita argindarra edukitzea”. Dagoeneko 63 dira Darahliren laguntzari esker eguzki plaka eskuratu duten Zugeko familiak –Zugek 6.000 biztanle ditu–. Hala ere, oraindik premia handia dago eta Zugeko agintariek eskatu diete hurrengo urteetan ere eguzki plakak bidaltzen segitzeko.

“Orain arte egin dugun lanaren bigarren zutabea senidetze kanpainak izan dira. Hiru urtean Zumaiaiko eta Zugeko 60 familia senidetzea zen helburua. Lehen urtean ia 20 lortu genituen; bigarrean erdia ere ez; eta azken urte honetan bat bera ere ez dugu lortu. Beraz, hor ez dugu hasieran jarritako helburua bete, eta haiei ere adierazi diegu zailtasun handiak ditugula senidetze gehiago egiteko. 2010ean gure ekintzetan bildutako dirua erabili dugu hitzartutako 20 familia horiei, gutxienez, laguntza ekonomikoa bidaltzeko. Eta aurrera begira ere bide horretatik jarraituko dugula adostu dugu Zugeko agintariekin: senidetzeak egin beharrean, urtero 30 familiari 100 euroko laguntza bidaliko diegu”.

Izan ere, nazioarteko erakunde publikoek gero eta laguntza gutxiago ematen diete saharar errefuxiatuei. “Herritarrek egiten dituzten janari bilketei esker jasotzen dute gehiena. Erakutsi ziguten hilabete osorako familia bakoitzak jasotzen duen janaria, eta huskeria da. Oso-osu gutxi. Frutarik eta haragirik ez dute jasotzen. Gutxienez hilean behin haragi pixka bat erosi ahal izateko diru laguntza ezinbestekoa zaie”. Osasun zentrorako eta eskolara oinarritzko materiala ere eskatu diete.

Hala ere, laguntza ekonomikoa eskertzen duten arren, ematen zaien babesa da gehien estimatzen dutena. “Babes hori sentitzea da gehien eskertzen dutena, beraiekin egotea. Eta babes politikoa da eskatzen dutena, hori baita auziari irtenbidea jartzeko bide bakarra”. Bide horretan, 2006an eta 2009an egin zen bezala, 2012an ere Tindoufeko errefuxiatuen kanpalekuetara herriko ikasleez osaturiko espedizio bat antolatzeke asmoa du Darahlik. “Lan handia da, baina merezi duela pentsatzen dugu. Astebetez beste errealtate bat ezagutzeko aukera dute, eta esperientzia horrek arrasto sakona lagatzen du gazteengan”.

### Gizonezkoak frontean

“Deigarria egin zitzaigun hain jende gutxi ikustea. Apenas zegoen gizonezkorik. Haurrak eta agureak baino ez. Beste guztiak frontean zeuden. Aaiungo istiluak gertatu zirenean, erreserban zeuden gizonezkoak ere armadara deitu zituzten, eta denak frontera eraman zituzten, kamioietan. Denda asko itxita ikusi genituen. Mugimendu gutxi. Eta jendea oso kezkatuta, lurralde okupatuetan dauzkaten familiengatik. Telefonoz hitz egiten zuten haiekin, baina gehiegi ere ezin, Marokok elkarrizketa guztiak kontrolatzen dizkietelako. Etxe batzuetan telebista daukate, eta han biltzen ziren albistegiak jarraitzeko. Sahararren telebistak etengabe ematen zituen Aaiungo kanpalekuko sarraskiaren irudiak. Eta sakelako telefonoetan ere bideoak zituzten, Aaiundik bertatik senideek bidalitakoak. Batzuek komentatzen zuten hildako asko egon zirela, beste batzuek Marokoko militarrek ur oso beroa jaurti zutela sahararren kontra, erredurak eragiteko... Egia esan, oso kezkatuta zeuden”.

erantzun zidan: “Hobe duzu etxera joan, ez ezazu halakorik eskatu”. Etxera joan nintzen. Ispiluaren aurrean jarri nintze-nean ikusi ahal izan nituen jipoien ondorioak. Aurpegia handituta eta ubelduta nuen. Argazki batzuk egin eta e-mailez bidali nituen Espainiako zenbait komunikabidetara.

Atxilotuta nengoela, bigarren egunean edo, gure aitak nire egoera salatzen zuen idatzi bat bidali zuen faxez Agadirrera, Espainiako enbaxadara. Espainiako hiritartasuna daukagu, baina inork ez zuen erantzun. Inork ez zuen deitu nitaz galdezkeko. Baina kuarteletik irten eta gertatu zitzaidana prentsan argitaratu zenean, eta Rubalcaba eta Jimenez ministroek giza eskubideen aldeko erakunde baten gutun bana jaso zutenean, orduan Marokorekin nire kasuaz hitz egin beste aukerarik ez zitzaizen gelditu. Aaiungo Casa de Españatik deitu zidaten:

—“Mariano jauna naiz, Casa de Españakoa. Arratsaldeko bostetarako prest egon zaitez, zure bila joango naiz medikua-rengana laguntzeko”.

—“Ni ez noa zurekin medikuarengana. Hasteko, ez naiz-lako medikuez fio; eta, horrez gain, berandu deitu duzulako. Kuarteletik atera berritan deitu izan bazenu, joango nintzate-keen, baina jadanik astebete pasa da”.

Handik gutxira, bigarren dei bat. Berriro Mariano jauna:

—“Presta zaitez larunbaterako, irtetzen lagunduko dizugu”.

Nik komunikabideetan adierazi nuen Aaiundik irten nahi nuela, Espainian zauriak sendatzeko.

## Lau orrialde zuri haiek

Goizean goiz etorri zen nire bila. Hegaldia 12:30ean genuen, baina aurrena nire paper kontuak konpondu behar genituen. Bulegoz bulego ibili ginen dokumentuak lortu nahian, baina inork ezin omen zigun arazoa konpondu. Abioia galdu genuen. Hala ere, 19:30ean beste bat har nezakeen. Halako batean, kontsularen deia jaso zuen Mariano jaunak. Jendarmeriaren kuartel nagusira joateko. Bost egunez torturatua izan nintzen lekura bueltatzeko, alegia.

Hara iritsi ginenean, kanpoan gelditzeko esan zioten Mariano jaunari, ni bakarrik sartzeko. Atetik pasa bezain pronto, lepotik heldu eta arrastaka ibili ninduten. “Kabroia! Zertara etorri hai?” hasi zitzaizkidan iraintzen. Orduan jendarmeetako batek ohartarazi zien kanpoan espainiar bat zegoela nire zain, eta bakean utzi ninduten. Koronelak nire pasaporte eman zidan. “Bazterren batean botata” aurkitu zutela esan zidan. Baina nik banekien hori gezurra zela, pasaporte autoan utzi nuelako, Gdeim Izik-eko kanpalekuan. Autoan zegoen gainerako dokumentazioarengatik galdetu nien, baina ez omen zekiten ezer.

Koronelak lagundu ninduen kanpoaldera, Mariano jauna-rengana. Hurbildu ginenean, horrela esan zion:

“72 lagun  
egon ginen  
korridore  
bat zuen  
hiru metro  
koadroko  
ziega batean”



—“Kabroi honek militarrek hil ditu bere autoarekin”.

Ni harri eta zur gelditu nintzen. Orduan, Mariano jaunak galdetu zion:

—“Eta zer egin dezakegu hemendik atera dadin?”

—“Oso erraza: aitor dezala kanpalekuko mafiak bahituta zuela, haiek jipoitu zutela, haiek lapurtu eta txikitu ziotela autoa”.

Nik esan nuen ezin nuela halakorik egin, baina Mariano jaunak esan zidan sinatzeko sinatu beharrekoak eta gero, behin kanpoan, erabakitzeko zer egin. Berriro kuartelera sartu ginen koronela eta biok. Jendarmeetako bati deitu zion.

—“Ahmed Yeddou ezagutzen al duzu?”

—“Bai” —ezagutuko ez ninduen ba, han bost egun eman eta gero...—

—“Ba entzun iezaiozu, kanpalekuko antolatzaileen aurkako aitortza bat egin behar du eta.

—Ez da beharrezkoa. Aitortza hori lehen ere sinatu zuen”.

Horrela jakin nuen atxilo nengoela sinatu nituen lau orri zuri haien edukia.

## Bueltatuko naiz

Koronelak joateko baimena eman zidan, baina nire arazoak ez ziren hor amaitu. Marokora autoz sartzzen zarenean hiru eguneko zirkulazio baimena ematen dizute. Irtetean, berriro autoarekin pasa beharra daukazu mugatik, edo bestela aduanan zergak ordaindu behar dituzu. Baina nik ez nekien nire autoa non zegoen. Militarrek nire aurrean txikitu zuten kanpalekura indarrez sartu zirenean. Ez dakit su eman zioten, baina kristalak eta atek txikitu zizkietela bai. Autorik gabe, arazoak izango nituen irteteko. Aduanara deitu zuten eta baimen berezi bat lortu zidaten. Horrela lortu nuen Aaiundik irtetea.

Baina bueltatzeko asmoa daukat, Jainkoak hala nahi badu. Emaztea haurdun dago eta seme bat daukat, eta nire familia guztia han dago. Ez dakit zer gertatuko den, baina bueltatu egingo naiz. Saharar batek bere lurra lagatzen duenean berriro ez itzultzea da Marokok nahi duena. Eta hori ez dugu onartuko. ■

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**RUBIO** Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERAK,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

**Talaja**  
taberna-jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

**Tapaia**  
Jatetxea



Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**Txingurri**  
Loradenda



Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

**Urola 2000, s.l.**  
Aroztegia

\*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberritzen  
\*Enbarkazio konponketa  
\*Ate, zokalo, tarima eta pertsiolak  
\*Armarirua enpotraturuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

**Xanti**  
Arantxa Azkue



Altzariak S.L.

Amaiako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5  
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943883532 Tel.: 943861631

**Zalla**



• plater konbinatuak  
• ogitartekoak  
• oilasko erreak

Upph Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**zapateixa**  
Konponketak



Maitasun Ukanaga

Oinetako eta erropa konponketak  
Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 652 727 740

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia



Aial auzategia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA MOTOR**

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**ZUMAI A**  
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua  
• Praktika eta azterketak Azpeltian  
• GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

**Zumaia optika**



Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
Institute  
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

**UZKUDUN**  
taberna-jatetxea



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Egumeko menua-Asteburuo menua-Meriendak-Plater konbinatuak-Errozioak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349

**Izaskun**  
arropa-denda



Erribera kalea, 3 Tel. eta faxa: 943860098



# ILUSIOA EGIA BIHURTUA

TESTUA: AINARA LOZANO LASA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA eta  
AINARA LOZANO LASA

Zumaiako Herri Eskolan ikasi zuen eta 20 urterekin amaitu zituen ikasketak. Ondoren, Gureak Taldeko Orioko tailerrean hasi zen lanean eta bi aldiz gaixoak zaintzen ere egin zituen praktikak San Juan egoitzan, "aitona-amonei salda beroa ematen". Institutuan ere aritu zen telefono deiak hartzen, harrera nola egiten zuen erakusten. Onintza Korta (1983, Zumaia) famatu bihurtu da azken hilabeteetan. Hainbat komunikabidetan agertu da Zarauzko Sanz Enea liburutegian lanean ari delako. Izan ere, Gureak Taldeak Zarauzko Udalarekin sinatu berri duen lankidetzaren hitzarmenari esker, bertan praktikak urtebetez egiteko aukera izango du.



*Pauso berriak* izena du Gureakek, Atzegirekin batera, bultzatutako programak, eta adimen urritasuna duten pertsonen integrazioa sustatzea du helburu, eta aldi berean, gizatalde honek lanerako duen gaitasunaz kontzientziatzen ditu herritarrek. Ilusioz beterik agertu da Onintza eskaini dioten aukeragatik. Liburuak txukun-txukun forratzen ari zela harrapatu du kazetari honek. Lotsatu xamar dago, Anaida Egibarrek, trebakuntza ikastaroa eman dion prestatzaileak, dagoeneko esan diolako aldizkari honetarako elkarrizketa egingo diogula, bera prest badago. Eta prest eta “oso pozik” agertu da, erretratua gero lagunei erakusteko aukera izango duelako. Onintzak 27 urte ditu eta Zarauzko Sanz Enea liburutegian urriaren 5ean hasi zen praktikak egiten. Egibar alboan izan du hasierako hilabeteetan, baina laster bakarrik arituko da lanean. Egunegi bat du lantokian egin behar duena jakiteko eta egunero, lehenengo, haur liburutegia txukuntzen du, askotan apaletatik kanpo geratzen baitira liburuak.

“Batzuetan jendea nahiko narrasa da eta jasotzen aritzen naiz guztia. Gero, helduen liburutegian, pegatinak jartzen dizkiet liburuei eta itzultze-orriak ere prestatzen ditut”. Halaber, ia egunero, CD eta DVDak garbitzen ditu, horretarako prestatuta dagoen makina berezi batekin. Dena ez da lana, ordea, eta egunero kafesnea hartzeko atsedena hartzen du. “Ohitura hori ez dut galduko, oso garrantzitsua da!”. Gustura nabaritzen zaio liburutegian eta bertan egongo da urtebetez, egin berri dituen lagunekin.

### Fotokopiatzea, gustukoen

Egutegian zenbaki gorriarekin agertzen diren egunak ere baditu. Liburu berriak fotokopiatzeko eguna dela esan nahi du koloreak. Irrikian egoten da tarte hori izateko. “Makinarekin ibiltzea asko gustatzen zait. Dibertigarria da oso liburuak fotokopiatzea”. Berde koloreko zenbakiak, berriz, helduen liburutegira igo eta egunkariak ordenatzeko garaia heldu dela ohartar-

“Makinarekin ibiltzea asko gustatzen zait. Dibertigarria da oso liburuak fotokopiatzea”

razten diote. “Bakoitzari bere zenbakia ipintzen diot eta kaxetan sartzen ditut”. Azkar igarotzen zaizkio orduak Onintzari eta 09:00etatik 13:00etara Zarautzen lan egin eta gero, Orioko Gureak Taldearen tailerrera joaten da, lanaldiarekin jarraituz. Horrela, azkar-azkar 13:08etako trenan hartzen du Orion bertan bazkaltzeko, tailerrean, “lagunartean”. “Tristerakoan deskantsatu egiten dut pixka bat eta gero lanean hasten naiz 17:30ak arte”. Ondoren, Zumaiara itzultzeko trenan hartzen du.



### ▼ LIBURUTEGIKO LANA

Zarauzko Sanz Enea liburutegian egiten du lan Onintza Kortak goizez. Arratsaldero, Oriora joaten da, Gureaken lantokira.





Tailerrean karpetak egiten ditu eta Gabonetarako bonboi kaxa goxoak prestatzen ere ibili da azken hilabeteetan. “Garaiz ibiltzen gara, gauzak presaka ez egiteko”. Kaxa hutsa pasa eta bonboiak bere tokian sartzen aritu deanean, baten bat jateko tentazioa ia ez duen galdetzean... “Baten bat jan dut, baina gehiago ez. Ez zaizkit eta komeni bonboiak!”. “Lagun ugari eta handiak” ditu tailerrean, eta harro sentitu dira eta batzuek “inbidia” izan dute Onintza komunikabideetan ikustean.

### Parolaldetik bizikletan

Bizikletan ibiltzea oso gustuko du eta egunero bere etxetik, Arrangoleta ondolik, Parolaldetik gertu, tren geltokiraino joan-etorria egiten du, bertan ibilgailua “behar bezala kateatu” eta ondoren tren hartzen du Zarautzera joateko. Baina azken hilabeteetan Moilaberriko zubiko obrak izan direla eta, bide luzeagoa egitea tokatu zaio. Arratsaldean, Oriotik itzultzean berriz ere bizikleta gainean jarri eta etxera itzultzen da. Kirola egiteko beta eskaintzen dio ohitura horrek. Negu parteko euri jasek ere ez dute ki-

kiltzen. “Txapela jarrita eta beroki handi bat dut ez bustitzeko. Etxera itzultzean, zain izaten ditu ama eta aita. Izan ere, haiekin bakarrik bizi da, bi anaia eta bi ahizpa dituen arren, guztiak ezkontuta daudelako. Bera da “etxeko txikiena”.

Bizikleta gainean ibiltzeaz gain, asteburuetan Atzegik antolatutako Txolarite programaren baitan prestatutako ekintzetan parte hartzea gustatzen zaio. Zarautzera gerturatzen da horretarako. Txolariteak aisialdiko taldeak dira eta 16 urte baino gehiago dituzten adimen urriko pertsonekin egiten dira. Talde hauen helburu nagusia aisialdiko ekintzak eskaintzea da nagusiki. Horrela, Onintzak, urtean zehar, begirale eta boluntarioekin hainbat irteera egiten ditu. Txangoak, festetara, antzerkira, zinema... hamaika ekintza egiteko aukera izaten du. “Arratsaldea lagunekin igarotzen dut eta paseatzea asko gustatzen zait. Zumaian ere irteten naiz batzuetan eta berrikerian aritzen naiz jendearekin”.

Elkarrizketa bukatzeko gutxi falta da eta Anaidak azaldu du Onintzak hasiera batean liburutegian egin beharreko lanak banan-banan egiten ikasi zuela. Bai-

“Lana amaitzen dudanean beti gogoarekin geratzen naiz bertan jarraitzeko”

na, dagoeneko, bakarrik egiten ditu betebeharrak guztiak. “Niri gaiztoaren papeira egitea tokatu zait eta errieta egin diot hala egin behar izan dudanean. Baina dagoeneko bakarrik egiteko prest dago. Jada ikasi duen seinale”. Sanz Eneako lanaldia amaitu zaion arren, Onintzak ez du nekatu aurpegiarik, ilusioa eta poza nabari zaio begietan. “Lana amaitzen dudanean beti gogoarekin geratzen naiz bertan jarraitzeko”, aitortu du. Oriora joateko prestatzen hasi da barre txikia aurpegian duela. Bertan igaroko du arratsaldea, lanean eta berrikerian, zain izango dituen Iban, Iñaki, Xanti eta tailerreko beste lagun handiekin ■



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatut ako jaki goxoak

# zumartian

## Zumaiako merkataritza indarberritzeko plataforma

### Nork osatzen du plataforma?

Plataforma honetako partaide dira hirugarren sektoreko enpresa guztiak eta Zumaian jarduerak kudeatzen dituzten udal teknikari guztiak.

### Zer ekintza gauzatuko dira?

Zumaiari onurak ekarriko dizkion sinergiak lortuko dira, merkataritzan, turismoan, kulturean, euskaran, kirolean eta ingurumen arloan egingo diren ekintzen bidez.

### Zein da estrategia?

Merkataritza indarberritzeko estrategiak, barrura eta kanpora begira ere sumatuko direnak, bai hirigintza eta azpiegiturei dagokienez, eta baita sektorearen dinamizazio eta sustapen mailan ere.

## IKASTAROK

LITERATURA IKASTAROA  
urtarril bukaeran eta otsailan,  
HARKAITZ CANOrenkin,  
Izen-ematea urtarrilaren 21a  
baino lehen Euskara Zerbitzuan.  
KUTXA AULAK: Golf Hastapenak,  
Gazteentzat Makilaia, Tai Chi.  
Informazioa: 943-000850  
/ www.kutxasocial.net  
OBOE ikastaroa. Musika  
eskolan (943861183)  
FORONDAN IKASTARO  
BERRIAK: Sukaldaritza, Josten,  
Yoga... Informazioa urtarriletik  
aurrera (943861056).

## URTARRILA

### Ostirala, 14:

**22:00etan** antzerki kontzertua  
"DEMODE QUARTET"

#### Sinopsia:

Demode Quartet umorez  
betetako musika ikuskizun  
harrigarria da, taldea eratzun  
duten lau kideek saio berezia  
eskainiko baitigute beren nortasun  
xelebrearekin. Antzerki ikuskizun  
honetan, **a capella** abestutako  
bertsioak entzungo ditugu, baina  
baita pianoz, kitarrak, biolaz eta  
kaxoi flamenkoz lagundutakoak  
ere; koreografia atseginak eta  
elkarriketa bitxiak. Hitz gutxitan,  
ordubete eta hoge minutuko **show**  
gutziz dibertigarria.

### Ostirala, 21:

**19:00etan** Komentuan, ZIIZen  
hitzaldia: "Zumaiko Makina-  
erreminta fabrikatzaileak"

### Igandea, 23:

**12:00etan** haur antzerkia, Aita  
Marin, DEJABUren "AZKEN  
PORTUA".

#### Sinopsia:

Didi eta Gogo dira Azken Portuko  
biztanle bakarrak, eta denbora luzea  
da ez dutela barkurik ikusi itsaso  
zabaletik portura iristen. Gogo  
zaharrak ez du jada egun hura  
gogoratzen.  
Dena den, Didi gaztearen  
jakinminak Gogoren oroimenetan  
murgiltzera eramango gaitu, Euskal  
Herriko arrantzaleen garaia, Enbata  
barkuaren azken bidaia eta Krixpin  
gaztearen abentura zoragarriak  
bizituko ditugu.  
Istoria hunkigarri honetan  
zuzeneko musika izango dugu  
lagun.

### Osteguna, 27:

**21:45ean** zine forum "LAS VIDAS  
POSIBLES DE MR NOBODY"

## OTSAILA

### Ostirala, 4:

#### 18:00etan Behoko Plaza

**Abesbatza** kalez kale aterako da  
kantuan SANTA AGEDA BEZPERA  
ospatuz.

### Ostirala, 11:

**22:00etan** Aita Mari aretoan,  
"EL CLUB DE LAS MUJERES  
INVISIBLES" antzerkia VAIVEN  
taldearen eskutik.

#### Sinopsia:

Emakumeak ongietorriak dira  
elkarre honetara, ikusezinezko  
emakumeen elkartera .... Hemen  
beraien historia kontatzeko aukera  
dute. Lehenengo tragua elkartean  
kontura izango da. Gauero gauero  
botilak usten diren bitartean  
emakume horien arimaz betetzen  
dira. Behin ere ez dira botatzen  
botila horiek.  
Jordi Galcerán, Aizpea Goenaga,  
Arantxa Iturbe, Juan Mayorga eta  
Oscar Terol autore garrantzitsuen  
eskutik sortutako ikusezinezkoak  
diren emakume horien historiak,  
triste zein alaiak, kontatzen  
dizkigute. Historia guzti horietan  
murgiltzeko Iñaki Salvador piano  
jotzailearen eta biolina jotzailea  
izateaz gain abeslaria den Aina  
Ortegarren laguntza izango dugu  
zuzenean.

### Igandea, 20:

**12:00etan** Aita Mari aretoan, haur  
antzerkia TXALOREn eskutik:  
"IPUINAREN BILA".

#### Sinopsia:

Ipuinek herri bakoitzaren ondarerik  
onena osatzen dute eta historian  
zeharreko gora-beherak gainditu  
dituzte kolektiboaren kontzientzia  
barneraturik daudelako.  
Familiarteko ikuslegoarentzat  
den ikuskizun honetan, ipuinez  
beteriko mundua sortzen dugu  
kultura bakoitzetik onena eskainiaz,  
kontinente desberdinetatik bira  
egiten duena.  
Abenturak bizitzeko nahiez,  
bi aktoreek ipuinen mundua  
zeharkatzen dute motor ikusezin  
batean, kontatuak izan daitezun  
gauz berriak bilatzeko asmoz.  
Baina ustekabeak (sakonean  
gehien desiratzen denak), amaiera



**Urtarrilak 21:  
19:00etan,  
Komentuan**

**ZIIZen hitzaldia:  
"Zumaiko Makina-erreminta  
fabrikatzaileak"**

Zumaian makina-erremintaren  
iraganaren ikuspegi bat  
emango du ZIIZ proiektuaren  
lan taldeko koordinatzaile  
Pedro Etxabek. Otto Holke,  
Euskal Herrian aitzindarieta-  
koa, fresadora oso ezagunak  
egiten zituen. Eguiguren, Satesa,  
Autornifer eta Urpek tornu  
fabrikatzaileak izan ziren, eta  
Aizpurua fresadoretan beste

marka ezagun bat zen. Talleres  
Urgainek, berriz tornuen osa-  
gaiak egin zituen. 400 lanpostu  
inguru sortu zituzten.  
Bestalde, makina-erremintak  
Euskal Herrian izan duen  
garrantziaz hitz egingo du Car-  
melo Urdangarin historialariak.



ohartezin batetara daramatza, auto  
baten zozketa barne.

Musika, magia, txantxak eta  
antzezlanik puruenak, ipuinen  
mundua zehatz-mehatz eta  
kultura bakoitzari dagokion  
adierazpenarekin azaltzelko balio  
digute  
Antzezlan hau une zoriontsuak  
eta dibertigarriak sortzeko egina  
dago, etxeko txikienei beldurra,  
jolasa, eguneroko azturak edota  
pertsonek arteko erlazioak modu  
errazean ipuinek murgilduta  
daudela agertzeko.

## INAUTERITAKO KARTEL LEHIAKETA

### Oinarriak:

- Gaia eta krteleko testua: "Zumaiko  
Inauterietako 2011"
- Zumaia-errei dago zuzendua;  
bakoitzak gehienez 3 lan aurkez-  
ditzake
- Teknika / neurria: marrazkia (era  
digitalean aurkezduak ere onartzat  
ematen dira). DinA 3 neurria  
(297x420mm)
- Egilearen izena eta datuak kartazal  
itxi batean ekarriko dira
- Aurkezteko epea eta lekua:  
Foronda kultur etxean, otsailaren 7a  
baino lehen.
- Epaimahaia Festa Batzordeak  
osatuko du, eta saria 380 eurokoa  
da. Foronda irabazleak Udalaren esku  
geratuko da eta Inauterietako festa  
egitaraua kaleratzeko erabiliko da.
- Aurkeztutako kartelekin erakusketa  
bat egiteko aukera ikusiko da  
Forondan, eta irabazi ez duten  
kartelak erakusketa itxi eta  
hurrengo 15 egunen barnean  
jasoko dira.



## IZENA

Alaba jaioberriaren izena hautatzea ez zen erraza izan.

Erditzearen unera arte egon ziren aukerak aztertzen, gogokoen zein zuten jakin gabe: Oihana, Ainhua, Nahia... Zein zen beraien alabatxoarentzat izenik egokiena?

Ospitalerako bidearen larritasunean hartu zuten azken erabakia. Ez zizkioten buelta gehiago emango: Oihana. Hori izango zen izena.

Hurrengo egunean, izenik egokiena hautatu izanaren pozarekin abiatu zen aita erregistrora, jaio berri zen izartxoaren izena ematera.

Pozarren sartu zen bulego tristean, eta hango funtzionarioen begirada hilei jaramonik egin gabe irribarrez jarraitu zuen mahai gainean behar ziren paper guztiak utziz.

Minutu batzuk igaro ziren funtzionarioak lehen aldiz hitz egin zion arte.

—Zein izen jarriko diozue haurrari? —galdetu zion ahots monotonoz.

Aitak irribarre zabal batekin erantzun zion bere poza ezkutatu ezinik.

—Oihana —esan zion, alabaren izena hitz magikoa izango balitz bezala ahoskatuz.

Funtzionarioa begi goibelez begira gelditu zitzaion.

—H non darama horrek? —galdetu zion aita zoriontsuari lehor.

Aita pentsakor gelditu zen eta pixkanaka irribarrea aurpegitik desagertzen joan zitzaion.

—Olatz —izan zen bere erantzun tristea.

# ZUMAIA

etxebizitzak salgai  
Odieta - San Jose

- 2 eta 3 logela,
- sukaldea jarrita
- trastelekuak eta garajeak



Zumalako Udala

informazio gehiago  
[www.zumaia.net](http://www.zumaia.net)  
943 14 34 15

232.000 eurotik hasita  
etxebizitza berriak



Udazken hasieran entregatuko dira.

**BATELA**  
**ARRANDEGIA**  
Izustarri, 2-4  
Tel. 943 860 750

*Aukera zabala bertako  
arrain freskoan*



# Tximista

Garagardotegia

Ondartxo plaza 4, behea

Tel. 943 573 905



**MERKEALDIA**

*Erai Zumaiar!*



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



RURAL  
KUTXA